


VILLA NAZARETH
D MAILA**LA FE PASEALEKUA 35**

Frantzisko Urkola, 1918.

Deskribapena

Villa Koralienea eta Villa El Cororekin batera ilara-etxebizitzen bolumen bera osatzen du, Urkolak diseinatu zituen horrelako multzoen beste adibide bat alegia; beste multzo bat dago hauek baino beheragoko kota batean, eta beste bat leku honetatik hurbil, Aldapetan. Bitxia bada ere, kasu honetan hiru etxebizitzak era batean bereizten dira ibarbiderako mendebaldeko fatxadan, eta beste batean, berriz, sarrera hartzen duen ekialdekoan, honetan horma piko bat daukate eta. Etxebizitza bakoitzari dagokion zatia teilatu-hegal eta estalkietako aldaketez bereizten da, eta azken solairuan murrurru aurreratuak izateagatik. Beheko solairua eta goiko bi solairu dauzkate, pasealekutik kontatzen hasita, eta beste solairu bat ere bada erdisoto eran, lorategi plataformarantz. Ilararen erdian dagoen etxe honek horma piko erdia partekatzen du Koralienearekin; horregatik, zutabe dorikoen arteko lau bao daude, bi alegia bakoitzarentzat. Fatxadetako lengoaiak Urkolak asko eta askotan erabilitako klasizismoa erakusten du, ordenei egin erreferentzietan eta arkutxo sailak dauzkaten atikoetako goialdeetan ikusten dugun moduan, bereziki teilatu-hegalaren azpian dagoen adreiluzko mailarekin eta, bestetik, lorategirako oriel windowarekin.

D mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: adreiluzko elementuak, zurezko elementuak, apaindura emokatuak eta estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.